

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
74 zenb.
2021eko uztaila



Herriko festen ordezt,
maiatza eta ekaina
kulturaz blai!



EUSKARAREN PILULA

ERDARAKADAK

Euskaraz ari garenean, askotan erabiltzen ditugu gaztelaniatik hartutako hitzak eta espresioak, euskarazko espresio jatorrak baztertuta. Hemen dituzue horietako batzuk:

1. *Baliarrain Tolosaldean **aurkitzen da**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.*
2. *Lehenengo korrikalaria bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **beranduago**.*
3. *Nire urtebetetze festara etortzeko gonbidapena **luzatzen** dizut.*
4. ***Ongi etorriak** gure tabernaren inauguraziora!*
5. *Lehenengo ostegunean **ospatu** zen gurasoen bilera.*

HONELA HOBETO

1. "Aurkitzen da" gaztelaniazko "se encuentra" espresioaren kalkoa da. Euskara jatorrean honela esango dugu:
*Baliarrain Tolosaldean **dago**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.*
2. "Beranduago" erabiltzeak esan nahi du aurreneko korrikalaria ere berandu iritsi dela, eta pentsatzekoa da, gure adibidean, lehenengo korrikalaria ez dela berandu iritsi. Beraz, honela esan beharko genuke:
*Lehenengo korrikalaria bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **geroago**.*
3. "Luzatu" tamainari lotuta erabiltzen da euskaraz (=luzeagoa egin), eta ez eman edo egin esateko. Gutunak, deiak, gonbidapenak eta horrelakoak ez dira "luzatzen". Beraz, euskaraz honela esango dugu modu errazagoan:
*Nire urtebetetze festara **gonbidatzen** zaitut.*
*Nire urtebetetze festara etortzeko **gonbidapena egiten** dizut (modu formalagoan).*
4. "Ongi etorri" espresioak ez du hartzen ez pluralik (ongi etorriak) ez singularrik (ongi etorria):
***Ongi etorri** gure tabernaren inauguraziora!*
5. "Ospatu" jaiak, urteurrenak eta horrelakoak egiten dira, zerbait ospatzeko arrazoia baldin badago. Bestelakoetarako "egin" da egokia:
*Lehenengo ostegunean **egin** zen gurasoen bilera.*

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (ekainaren 30ean)	1.014	1.072	2.086
JAIOITZAK (otsailaren 9tik ekainaren 30era)	Samira Lide Lur Leire Mara Laida	Luka Unax Aksil Sergio	10
HERIOTZAK (otsailaren 9tik ekainaren 30era)	Isabel Beatriz M ^a Elena Isabel	Angel Dionisio	6

KULTURA

AURTEN ERE KUKUA EZ ZAIGU JAITSI PLAZARA

Osasun egoera dela eta, tamalez, azken bi urteotan ezin izan ditugu herriko festak antolatu ohiko formatuan, eta kukua basoan gelditu da, gure plazara gerturatu gabe.

Iaz konfinamendutik atera berriak ginela izan zen Korputs Eguna, eta ziurgabetasun handia zegoen osasun baldintzekin ezer antolatzeko. Horregatik ezer nabarmenik egin gabe pasa ziren herriko festak, herri askotan bezala.

Aurten, zorionez, egoera desberdina izan da, eta osasun neurriak kontutan hartuta murrizketak eta neurri bereziak kontutan hartu behar badiugu ere, ekimen asko burutu ahal izan ditugu. Udalak eta herriko hainbat taldek eta boluntarioek elkarlanean kultur agenda berezia prestatu genuen maiatza eta ekainerako, herriko festak ardazten diren filosofia partehartzaileari eutsiz.

Izan ere, kultur agenda oparoaz gozatzeko aukera izan genuen, oso eskaintza anitza izanik, bai jardueri dagokienez (dantza, kontzertuak, antzerkiak, dokumentalak, haur ikuskizunak, kirol jarduerak...), baita adinei dagokienez (haur, gazte zein helduentzako).

Espero dugu benetan herritarrek gozatu izana. Eta espero dugu ere datorren urtean gure ohiko festak berriro dastatzeko aukera izatea.

Bitartean, eskerrik asko aurten antolaketa lanean ibili diren herriko talde eta boluntarioei, hala nola jardueretan parte hartu dutenei ere, herriko bizitza eta kultura bizi-bizi mantentzeagatik! Animo eta aurrera beti!



EUSKARA

Euskara ikastaroetarako dirulaguntzak

Anoetako Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak emango ditu, 2020-2021 ikasturteari dagozkionak. Eskaera egiteko, agiri hauek aurkeztu behar dira udaletxean, uztailaren 16rako:

- Eskaera-orria behar bezala beteta.
- Nortasun agiriaren fotokopia.
- Kontu zenbakiaren titularra izatea egiaztatzen duen bankuko agiria.
- Matrikula ordaindu izana egiaztatzen duen agiria.
- Langabezian egonez gero, Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren txostena, eta jubilatuta egonez gero, hori frogatuko duen agiria.
- Euskaltegiak ikastaro amaieran emandako ziurtagiria.

Eskaera modu telematikoan ere erregistratu daiteke, udal webgunearen bidez.

Informazio gehiago lotura honetan:

<http://www.anoeta.eus/eu/euskara-ikasteko-diru-laguntzak>



GAZTERIA

Udalekuak 2021

Garai txarrak bizitzen ari garela argi dago, baina gutako inork ez du egoera horren errurik, are gutxiago gure txikiek. Mundu-mailako gertakari historiko honek gauza asko kendu dizkigu eta, horien artean, haurrei esperimentatzeko eta ondo pasatzeko funtsezko eskubidea kendu die.

2021. urtean, txertaketen eta milaka murrizketen ondorioz (asko ez guk nahi bezain eraginkorrak), azkenean, udalekuei eta haurren aisialdi-ekintzei hasiera emateko aukera izan dugu, eta guri, enpresa txiki bat garen heinean (Loiri – Aisialdia eta Kirola), horrek oso modu positiboan eragin digu. Lehenik eta behin, haurrekin egiten dugun lana lasaiago egiteko aukera dugulako eta, horrez gain, gure baloreek eta filosofiak aurrera egiteko erakundea berriz ere martxan jartzea ezinbestekoa zelako.

Hasieran, Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazi zigutenean udalekuak abian jartzeko prozesuarekin hasiko zirela, guk urrun ikusten genuen aukera, administrazioak ezarritako neurriekin ezinezkoa baitzen haurrentzako hainbat aisialdi-ekintza garatzea.

Zentzu handiegirik gabeko neurrien artean, razioak murriztekoa zegoen. Orain aplikatzen ari garen dekretuaren aurretik indarrean zegoen dekretuari eutsita, begirale bakoitzari gehienez ere 6 haur esleitzeko aukera eman ziguten. Neurri horrek ez du batere zentzurik haurren aisialdi-ekintzetan lortu nahi diren helburuak lortzeko dinamikak aplikatzeko orduan, hala nola haurrek ekintzetan taldean parte hartzea, bizikidetza sustatzea eta haien arteko harremanak sendotzea.

Orain indarrean dagoen dekretua 2021eko ekainaren 1ean jaso genuen, eta Anoetako Udaleku



Irekiei ekainaren 28an ekin behar genien. Beraz, egoera arruntean udalekuak antolatzeko sekulako lana hartzen badugu, egoera honekin eta epe motz horiekin lana bikoiztu egin dela esan dezakegu. Hala ere, milaka arrazoi bururatzen zaizkit lan-kargaren igoera horrek zinez merezi duela konturatzeko, txikienek ez baitute egoerak eragindako zailtasunen errurik.

Gaur egun, orain erregulatzen gaituen testuari begira, ratioak 1 eta 10 bitartekoak dira eta, horrela, helburuak lortze aldera, ekintzak zertxobait gehiago landu ditzakegu, betiere protokoloari eutsita; askatasun asko murriztu behar izan ditugu, taldeen artean nahasteko aukera, adibidez. Antolakuntzan argi daukagu (eta ez gaude inondik inora neurri horren alde) hau ez dela haurrentzat egokiena, eta begiraleei ere lan handiagoa sorrarazten diela, kontrolari dagokionez esaterako, baina administrazioetik iristen zaizkigun neurriak errespetatu behar ditugu eta, beraz, horiek derrigorrez aplikatu behar ditugu.

Argi dago pandemia-garaian bizi garela eta arris-kuz kanpo inor ez dagoela, baina, gertatuz gero, eta taldekide edo begiraleren batek positibo

emanez gero, protokolo eraginkor bati eutsiko diogu, eta Osakidetzarekin elkarlanean, behar bezala jokatu dugu.

Hala ere, “Loiri – Aisialdia eta Kirola” erakundeko arduradun gisa, eta udaleku hauen zuzendari eta antolatzaile gisa, harro esan dezaket, udaleku hauetan, begiraleek haurrentzat prestatutako ekintzak haien aisialdirako oso egokiak direla eta lan ona egiten ari direla. Talde-lanari esker, helburuak lortzeko giro paregabea sortzen ari dira, begiraleen arteko nahiz haurren arteko harremanei dagokienez. Komunikazioa eraginkorra izaten ari da une oro, beraien artean eta koordinatzailearekin berarekin, eta beraz, ekintzak planteatu diren moduan gauzatzen ari dira.

Ziur nago Anoetako Udaleko Gazteria sailetik egin duten ahaleginarekin, “Loiri – Aisialdia eta Kirola” egiten ari den lanarekin eta begirale taldearen lanarekin, Anoetako haurrak oso pozik eta gustura iritsiko direla egunero etxera eguerdiko ordu batean, eta batez ere, goizean goiz udalekuetara joateko gogoz esnatuko direla. Hori horrela bada, herriko txikienekin gauzak ondo egiten ari garenaren seinale izango da.

GIZARTE ZERBITZUAK

Anoetako Udalak 168 dei egin ditu herriko adinekoen errealitatea ezagutu eta haien beharrak hautemateko

Anoetako adinekoen laurdena bakarrik bizi da, eta hamarretik zortzik azaldu du oso nekatuta dagoela.



Joan den martxoan, dei bidezko arreta zerbitzua eman zien Udalak herriko 75 urtetik gorako biztanleei. Dinamikaren helburua izan da, batetik, identifikatzea osasun-krisiak zein eragin izan duen pertsona horiengan; eta, bestetik, lehen eskutik ezagutzea haietako bakoitzaren errealitatea. Deien bitartez, Udaleko gizarte-zerbitzuen sailak adinekoen beharrak hauteman ditu, gero eskaini ahal izateko baliabide bat, zeina haien premietara egokituko baiten.

Pello Estanga alkateak gertutik jarraitu du prozesua eta azaldu duenez, "harrera oso ona eta be-
roa" izan du dei-zerbitzuak herritarrengan. Dena dela, kezka ere adierazi du lanketatik lortutako informazioarekin: "Emaizta oso esanguratsuak dira eta herriko 75 urtetik gorako adineko jendearen errealitatearen isla dira".

Deia jaso duen hiru laurdenak ez zuen udal gizarte-zerbitzuen berri, nahiz eta joan den urtean birritan bidali gutun bat horien berri eman. Errealitate horren aurrean, Udala lanean ari da gizarte-zerbitzuak herrira zabaltzeko ahal izateko eta herritarren ongizatea bermatzeko ate bat gehiago eskaintzeko. Bide beretik, lanketari jarraipena emateko, deien dinamika errepikatzeko asmoa du udaleko gizarte-zerbitzuen sailak.

LANKETAREN NONDIK NORAKOAK

Telefono-deietan hainbat motatako galderak egin dituzte herritarren premiak hautemateko, eta, oro har, lau arlotako datuak bildu dituzte: arlo biologikoa (osasun-egoerari buruzkoa), arlo ekonomikoa (egoera ekonomikoari buruzkoa),

arlo soziala (harreman sozialei eta inguruko sareari buruzkoa), eta arlo psikologikoa.

Guztira, 168 herritarrek jaso dute dei bidezko arreta-zerbitzua. Horietatik %60,11 emakumeak dira, eta %39,89 gizonak. Deiak jaso dituzten %4,1 zahar-egoitza batean bizi da, %24,40 bakarrik bizi da etxean, eta %71 bikote edo senideren batekin bizi da.

Arlo biologikoari dagokionez, hamarretik seik adierazi dute bizitza aktiboa mantentzen saiatzen direla; kontrara, mugikortasun-arazoak ditu %12ak. Osasun-egoerarekin jarraituz, %9ak gaitasun orokorrak ditu, eta %13ak, berriz, gaitasun psikikoak. Ekonomiaren alorrean, etxebizitza haien beharretara egokituta du %60ak, kasurako, igogailua eta komuna. Hamarretik hiru ez daude konforme eta aldaketak eskatu dituzte; eta hamarretik batek etxebizitza ez du egokituta, baina ez du aldaketarik nahi.

Bizitza sozialaren inguruan, pandemiaren aurretik %95ak bizitza sozial oparoagoa zuen. Bide beretik, guztiek azaldu dute pandemia hasi zenetik noizbait isolamendua jasan dutela; eta deia jaso dutenen hiru laurdenak esan du senideen premia handia sentitzen duela. Guztiek onartu dute, baita ere, buruhauste gehiago dituztela osasun-krisia hasi zenetik; eta hamarretik zortzik adierazi du oso nekatuta dagoela. Egoerarekin errudun sentitzen da galdekatuen erdia; hots, gaitasunaren aurrean zaugarrienak direla-eta, uko egin diote senideekin eta lagunekin elkartzeari. Horrez gain, hamarretik hiruk depresio-agerraldiren bat izan du eta %65ak dolua pairatu du.

INGURUMENA

BERTAKOA BERTATIK ETA PLASTIKORIK GABE – ESKOLA AGENDA 2030

Anoetako Herri Ikastolarekin elkarlanean, erosketa poltsa berrerabilgarriak banatu genituen. Eskola Agenda 2030aren bueltan, ikasturtean zehar ekonomia zirkularrari lotutako hainbat gai landu dituzte. Egindako lanaren berri emateko Udal Foroa ospatu genuen. Ikasleek alkateari eta ingurumen zinegotziari azaldu zizkieten proposamenak.

Udal Foroaren ondotik, herriko plazan erosketa poltsa berrerabilgarriak banatu genituen. Guztira 1.000 erosketa poltsa handi eta 2.000 poltsa txiki erosi zituen Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Zirkularreko diru-laguntza baten laguntzarekin. Ekimen honek "Bertakoa Bertatik" proiektua du ardatz. Tokiko produktuak eta tokiko merkataritza indartzea da Udalaren helburua, baina horrez gain, plastikoaren erabilerara murriztu eta eguneroko ohitura txikietatik helburu handiak lortu asmoz.



ETORKIZUNA EREITEN – BASO ESKOLA

Anoetako Herri Ikastolak Baso Eskola proiektua martxan jartzeko elkarlanean aritu gara. Udalarenak diren herriko hainbat gune identifikatu ziren horretarako eta irakasleentzat formakuntza finantzatu zuen Udalak.

Azken urteetan gizartea naturatik aldenduz joan da, eta beharrezkoa iruditu zaie lurrarekin eta lurraldearekin harremanak berreraikitzea. Azken urteetako ikerketek erakutsi dute naturarekin zuzeneko harremana izateak zuzenean eragiten duela haren zaintzan. Horixe da Anoetako Udalaren apustua: lurrarekin harreman estua izango duten herritarrak hezteak.

Bide honi jarraika, maiatza eta ekainean zehar baratza eta sukaldaritza tailerrak eskaini ziren Anoetako Udaleko Ingurumen eta Gazteria sailen arteko elkarlanarekin. Maiatzaren 15ean, baserritarren eguna dela aprobetxatuz, herriko ume eta gaztetxoak nekazal kulturara gerturatu eta tokiko elikaduraren bueltan hezteko saioak antolatu genituen. Baita ederki pasa ere!





ERREKA GARBIKETAK

Apirilean ekin genion erreken eta ibaien garbiketari. Urtebeteko tartean, hilero astebetez herriko ingurunean garbituko dituzte. Hiru hilabete hauetan zehar 2.000 kg hondakin inguru atera dituzte herriko ibai eta erreketatik. Datuek argi erakusten dute bazegoela garbiketaren beharra, baina horrez gain, argi erakusten dute herritar gisa ere asko dugula ikasteko. Zaindu dazagun maite dugun hori!



ZAKARDIKO ATSEDENLEKUA

Zakardiko atsedenlekuan hainbat txukunketa egin dira eta horrekin batera parrilla berria jarri da. Gero eta gehiago dira herriko atsedenlekue-tako erabiltzaileak, jarraitu dezagun gune hauez gozatzen eta hauek zaintzen!



KIROLDEGIKO EREMU BATEAN SUKALDE-OBRADORE BAT EGINGO DA

Anoetako Udalarentzat erronka handia da tokikotasunetik ekonomia zirkularraren eta ekonomia ekologikoaren oinarriak bultzatzea eta helburu horiek lortzeko praktikak indartzea. Tokiko elikadura osasuntsuaren aldeko apustuak halaberrez biltzen ditu balio hauek.

Bide horri jarraika, espazio berri bat sortzea erabaki da, zeinak, batetik, helburu izango duen herriko ekonomia dibertsifikatzea eta lan aukera berriak sortzea; eta, bestetik, egokitu egingo den herritarren kontsumo ohituretara. Hori lortzeko Abraham Olano Kiroldegian espazio bat egokitu da sukalde moduan, eta bertan elikagaiak prestatu, aurkeztu eta merkaturatu egingo dituzte. Proiektuak aurkezteko epea pasata, esleipen prozesuan dago proiektua.

HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAK GORA EGIN DU

Martxoan errefusaren edukiontzia kendu eta errefusa ere atez ate biltzen hasi ginenetik gora egin dute gaikako bilketaren datuek:

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
% 65,20	% 62,41	% 72,55	%73,44

Datu hauei gehitu behar zaie norbere etxeetan nahiz eta auzokonposta guneetan konpostatzen den organiko kopurua ere. Beraz, Europako eta Gipuzkoako Hondakinen Planek 2030. urterako %75ko gaikako bilketa datuak dituzte helburu, Anoetan dagoeneko helburu horren bueltan gaitza. Eutsi diezaiozun horri!



ERREZETA

Zerba eta kalabazin tortila

Osagaiak

- 150 Gramo patata
- 5 Arraultz
- Kalabazin 1
- Azelga hostoak
- Oliba olio extra birgina
- Bi baratzuri ale

Nola prestatu

1. Zartagin batean tipula txikitua eta oliba olio gehitu eta frejitzen hasi. Patatak zuritu, zatitu eta zartaginera gehitu.
2. Ondoren, kalabazina zurituta eta zatituta gehitu eta frejitzen jarraitu.
3. Gutxi gora behera egina dagoenean, zerbak eta kalabazin txikitua gehitu.
4. Arrautzak irabiatu eta elikagai guztiak gehitu eta ondo nahastu.
5. Elikagaiak frejitu ditugun zartagin berean gehitu egindako nahasketa, eta egin tortilla bi alboetatik.

Iturria: #naiaerrezetak



LIBURUTEGIA



ANOETAKO UDAL LIBURUTEGIA

liburutegi@anoeta.eus

943543897

UDAKO
ORDUTEGIA

Ekainaren 21etik irailaren 3ra

Astelehenetan
16:00-19:30Asteartetik
ostiralera
10:00-13:30Abuztuaren 2tik 20ra
ITXITA

Liburutegia itxita dagoenean,
sarrerako buzoia erabili
maileguak itzultzeko.



LIBURU BERRIAK

Sartu gure katalogoan
liburutegiko eskurapen
berriak ikusteko.

Katalogoa erabiltzen ikasi nahi baduzu,
zatoz liburutegira.



<https://labur.eus/MHOUB>

KOMIKITEKA

Gune berria sortu
dugu haur, gazte eta
helduentzako
komikiekin.

Zatoz ezagutzera!



PAREKIDETASUNA

Indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa

Jakingo duzueenez, ADI eta SO! indarkeria matxistaren aurkako behatokia sortu dugu Anoetan, eta protokolo bat landu du Udalak Ikastolarekin eta herriko emakume taldeekin, erasoren bat izanez gero nola jokatu zehazteko, eta erantzun publikoa artikulatzeko. Triptikoa herriko etxe guztietan banatu genuen martxoaren bukaeran, eta orain bideo labur bat prestatzen ari gara sare sozialetan zabalteko azaroan, Indarkeria Sexistaren Aurkako Egunaren harira.

Ahalduntze eskolan antolatutako ikastaroak, arrakastatsuak

Urtarriletik ekainera lau ikastaro antolatu dugu Ahalduntze Eskolaren baitan: mindfulness, xilografia, emozioak kudeatzeko ikastaroa eta irakurketa feminista. Jendea oso gustura ibili da denean, gai desberdinak jorratuz, beti ere jabekuntza helburu eta ikuspegi feminista ardatz.

Udazkenean berriro ekingo diogu gaiari! Bitartean, proposamenik edo gai zehatz baten inguruan interes berezirik izanez gero, idatzi kultura@anoeta.eus helbidera, eta saiatuko gara martxan jartzen.



LOATZO



Loatzo musika-eskolako ikasleek ikasturtea amaitu berri dute

Egoera korapilatsua izan arren, azkenean lortu dugu emanaldi batzuk antolatzea

Alde batetik, Euskal Herriko Musika Elkartek antolatutako Eskusoinuen Topaketa birtualaren harira, maiatzean, Loatzoko 25 eskusoinu-ikasle elkartu ziren Anoetako auditoriumean, grabaketa birtuala egiteko asmoz.

Eta bestetik, ekainean, musika-hizkuntzako 1., 2. eta 3. mailetako ikasleek ikasturte amaierako entzunaldia eskaini zuten auditoriumean, denon gozamenerako. Ederki astindu zituzten beren tresnak Imanol Urbietaren omenez, Kortaturen eta Mikel Urdangarinen abestiekin.



Era berean, aipatu behar da ikastolako aterpe berria erabili dugula lehenengoz, biolineko orkestra eta klarineteko taldeekin.

MILA ESKER!!!!

LABURRAK



DEATH CAFE: Heriotzak lasai hitz egiteko topaketa gunek

Joan den ekainaren 25ean Death cafe tertuliaren bigarren saioaburutu zen. Egitasmo honen helburua heriotzari buruzko gogoetak, sentipenak edota esperientziak elkarbanatzea izanik, harre-ra ona izan dute.

Heriotzari buruz modu naturalean eta lasaitasunez hitz egiteko gunek babestu honek jarraipena izango du irailetik aurrera, eta egoerak ahalbidetzen duen neurrian bizkotxo eta kafe edo infusio baten bueltan burutuko dira.

Parte hartu nahi izanez gero, izena eman kultura@anoeta.eus helbidean. Saioak doakoak dira.



HERRI SARRERA

Herri sarrerako zubiko zoladura berritu dute udal langileek



Ekainak 28: LGTBIQ+ HARROTASUN EGUNA

Ekainaren 28an plazako eskailerak margotu zituzten ortzadarraren kolorekin, Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez.

Egun batzuk aurretik, ekainaren 22an, Loratuz Lotu Elkarteko bi kidek trans bizipenei buruzko hitzaldi interesgarria eskaini zuten gatzetxean.





ESKERRIK ASKO!

Eskerrik asko ikasturte honetan ere Anoetako Kiroldesia aukeratu izanagatik. Ikasturte berezia, hasiera poliki-poliki eman geniona eta erronka gaituta bukatu duguna. Berrito ere argi utzi duzue Anoeta mugitzen den herria dela.

*"Ezinezkoa dena posible eginez,
posible dena erraz,
eta erraza dena dotore"*



KULTURA ESKOLA EGITASMOA

Kultura Eskola egitasmoa jarri du martxan Aldundiak aurtien lehenengoz, kultur kontsumoa sustatzeko DBHko gaztetxoan artean. Helburu horrekin, kultur eskaintzen katalogoa bidali zien Aldundiak ikastetxeei, eta Anoetako Herri Ikastolak "Zirkua munduan murgiltzen" aukeratu zuen, Xomorro Elkarteak gidatutako saioak. Guztira 8 saio egin zituzten DBHko gela guztiekin ekainaren 8tik 10era, eta ikasleek zirkua munduko hainbat modalitateetan trebatzeko aukera izan zuten, giro onean. Gastua 1.840 eurokoa izan da: Aldundiak %90a finantzatu du (1.656 €), eta gainontzeko %10a Udalak hartu du bere gain (184 €).



AURTENGO UDABERRIAN ERE SENDABELARRETAKO IKASTAROA IZAN DUGU

Beste urte batez, sendabelarretako ikastaroa antolatu zuen Udalak udaberrian Sara Letamendiarekin. Giro onean, gure inguruko landareen ezaugarriak eta erabilerak ezagutzeko aukera izan zuten partaideek.



MUSIKA LOKALAK BERRITUTA EDURKAN

Obrak egin dira Edurka pabilioian gaztetxe ondoan kokatzen diren musika lokaletan. Orain beheko solairuan lokal bat eta musika estudio bat daude, eta goiko solairuan beste bi musika lokal. Obrak abenduan hasi ziren eta martxoan amaitu. Ondo gelditu dira, argi naturala daukate eta baita ere leihoak, haizeztatze. 40.000 euro inguruko inbertsioa egin du udalak obra honetan.

Anoetako Gazte Asanblada



Kaixo!

Amaitu da pandemiak baldintzatutako ikasturte hau, eta sentimendu gazi-gozaok ditugu. Pandemiaren aitzakiapean jarritako hainbat neurrik izugarri korapilatu dute gure jarduna. Anoetan ere ugaritu egin da poliziaren presentzia, eta identifikatu ere egin dituzte zenbait kide.

Hala ere, egoera zaila izan arren, gaztetxeko obran aurrerapauso handiak eman ditugu: musika-estudioa, sukaldea eta liburutegi berriak ditugu, eta orain, eremu horiek proiektuz betetzea dagokigu. Baratzean ere egin dugu udara begirako landaketa, eta itxura polita hartu du.

Azken hilabeteen, urtemuga ere ospatu dugu: gaztetxeko eremu berriak erakustez gain, kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak edota film laburren emanaldiak antolatu ditugu. Eskerrik asko gerturatu zareten guztioi!

Horrez gain, herriko beste hainbat taldek antolatutako ekintzak izan ditugu: gaztelekuarekin elkarlanean, gaztetxoek sukaldaritza-tailerra egin zuten eta, horrez gain, umoreari buruz hausnartzeko pote filosofikoa izan genuen. Ezin esan gabe utzi herriko banako eta eragile guztiok gaztetxeko ateak irekita dituzuela buruan duzuen ideia oro gauzatzeko.

Udan, gaztetxean geratzen zaizkigun azken obrak amaitzeko tarte hartuko dugu. Eta uztailaren 9an, Gasteizko Etxebizitza Sindikatuari gure babesa adierazteko kontzertuak antolatuko ditugu. Izan ere, 30.000 euroko isunak jarri dizkiete etxegabetze bati aurre egiteagatik, eta kontzertuan ateratako irabaziak bertara bideratuko ditugu.

Datorren ikasturtean ere ikasten, konspiratzen, sortzen eta eraikitzen jarraituko dugu. Izango duzue gure berri.

ANITZ Dantza Taldea

Kaixo!

Oso urte zaila bizitu ondoren, Anitz Dantza Taldeko kideok ilusio handiz ekin diogu 2020-2021 ikasturte bukaerari. Hori dela eta, aurten oso beselako emanaldiak prestatu ditugu.

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu dantza-taldeko ikasleei, gurasoei eta Anoetako Udalarari, ikasturte osoan zehar jarritako erraztasunengatik.

Emanaldira joateko, dantzari bakoitzari 2 gonbidapen eman zitzaizkion (edukieraren eraginez), eta sobera gelditu zirenak Anoetako liburutegian jarri ziren eskura, herriko edonork joan ahal izan zezan.

HH3tik LH2ra, 43 dantzarik parte hartu zuten. Beraien eskola-egunean (ekainak 8an, 9an eta 10ean), ikasturte guztian zehar ikasitako dantzak eskaini zituzten (2 saio egun bakoitzeko).

Ekainaren 12an, 18:30ean, LH3tik aurrerako taldeak aritu ziren Abraham Olano kiroldegian; 64 dantzarik parte hartu zuten guztira. Dantza-talde bakoitzak bi edo hiru dantza eskaini zituen.

Egindako emanaldiak oso arrakastatsuak izan ziren.

Besterik gabe, irailean elkar ikusiko dugula koan... zaindu zaitezte.

ANITZ DANTZA TALDEA



Anoetako EH Bildutik hainbat ekimen gauzatu ditugu

10. urteurreneko ospakizunen harira

Batetik, **10. urteurreneko dokumentala** bota genuen zimiterioan.



Eta, bestetik, Mikel Otero legebiltzarkide anoe-tarrarekin solasean aritu ginen, "larrialdi klimatikoari nola aurre egin ezkerretik eta burujabetzarantz" gaiaren inguruan. Bizi dugun mundu mailako larrialdi klimatiko honen zergatiak eta ondorioak aztertu genituen. Egoera honetan, sistema hori sostengatu nahi dutenak egiten ari diren "aurpegi berdetzea" ere aztertu genuen. AHT trantsizio ekologikorako proiektu estrategiko baten gisa salduta, multinazional eta enpresa handien mesedetan jarritz larrialdi klimatikoari aurre egiteko laguntzak... Ikuspegi ezkertiar batetik, eta Euskal Herriaren burujabetza helburu izanik, herri gisa nola jokatu beharko genukeen aztertu genuen. Azkenik, Anoeta bezalako herri txiki batetik, herrian bertan zer neurri hartu beharko genituzkeen aztertu genuen. Gai hori estrategikotzat jotzen dugu Anoetako EH Bildun, eta aurrerantzean ere horren inguruan hausnartu eta lanean jarraituko dugu, herrigintza eta udalgintza uztartuz, beharrezko neurriak planteatu eta herritarrekin bide hori egiteko.



ehbildu

Anoeta



Azken hilabeteetan ahalegin berezia egiten ari gara EH Bilduren mezua herritarrengana iristeko bideak indartzeko. Maiatzean, "Herripapera" aldizkaria etxe guztietan jaso zenuten, eta gure asmoa dinamika horrekin jarraitzea da. Maiatzaren bukaeran ere panelak jarri genituen herriko hainbat txokotan. Horien bidez, hilabeteko albiste nagusien laburpena herriratzea da asmoa.

Izango duzue gure berri!



hamar urte
baino ez.

ehbildu
Anoeta

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista



Inor ez dago sobera!

Patronalak eta EAJ-PSEren Gobernuak egindako erasoen aurrean, batu ditzagun indarrak greba orokor batean!



Azken hilabeteetan, Euskal Herrian etenik gabe eztanda egiten ari dira langile-borroka indartsuak, mobilizazioak eta grebak. EEE eta erasoen guda honen erdian, langileria esperientzia zinez baliagarria bereganatzen ari da, eta patronalaren erasoen aurrean indarrak batzeko urratsak behar-beharrezkoak dira. Borrokan ari diren langileen mobilizazio bateratuetatik eta horietan arnastu den giro eta indarretik —eta patronalari sortutako urduritasunetik—, honako ondorio hau ateratzeko: indarrak batu eta erasoei klase guztiaren indarrarekin erantzun behar diegu.

Sindikatu-zuzendaritzek enpresaz enpresa egindako borroka ez da nahikoa gainean dugun ofentsibari aurre egiteko. ELAk eta LABek horrekin hautsi eta erreakzionatu egin behar dute. Greba orokorra behar dugu, baita jarraipena emango dion borroka-plan bateratu bat ere, mobilizazioz eta grebaz beteriko egutegi tinko bat prestatuz.

Jakina, langileriaren aurkako erasoaldi hau ezinezkoa izango litzateke PSOE-UPren Gobernuaren eta, gure kasuan, EAJ-PSEren Jaurlaritzaren laguntzarik gabe. Gainera, EAJk enplegua defendatzeko mobilizazioak jazarri eta kriminalizatzera bidali du Ertzaintza sistematikoki.

Ezin dugu onartu, laguntza publiko milioidunak jaso eta izugarritzko etekinak eskuratu ondoren, langileria langabeziara eta miseriara kondentzea. Kaleratze masiboen edo ixteen kontura etekinak areagotu nahi dituzten enpresa guztiak nazionalizatu behar dira, kalte-ordainik gabe eta langileen kontrolpean. Ekoizten jarraitu behar dute, baina ez akziodunei etekinak sortzeko, premia sozialak asetzeko baizik, asko baitira.

**EZKER IRAULTZAILEA
EUSKAL HERRIA SOZIALISTA**

Gazteon irtenbide bakarra, burujabetza



Kaixo denoi!

Azken urte honetan, pandemiak erabat baldintzatu ditu gazteon bizitzak. Urteak generamatzan gazteon bizitzak zeharkatzen dituen prekarizazio prozesua salatzen, eta pandemiak prozesu hori areagotu egin du.

Hori diote dautek: hiru gaztetatik bat langabezian dago Euskal Herrian, eta iaiztik hona %37 igo da datu hori. Langabezia gain, emantzipatzeko arazo larriak ditugu gazteok; azken urteetako turistifikazio eta gentrifikazio prozesu bortitzen ondorioz, gazteok soldataren %45a erabiltzen dugu etxebizitzaren alokairua ordaintzeko. Eta are larriagoa dena: Hego Euskal Herriko gazteon erdiek ezin dugu emantzipatu.

Bizitza garestitzen ari da, prezioak igotzen ari dira, eta gazteon enplegu baldintzak eta soldata modu basatian jaisten ari dira. Ezinezkoa zaigu bizitza duina garatzea, eta hori salatzeke, Er-


naiko kideok Hego Euskal Herriko hiriburuetakoko kaleak hartu genituen maiatzaren hasieran. Bide batez, doakiela gure babes guztia mobilizazio horien harira auziperatu dituzten zortzi gazteei.

Egoera horren aurrean, gazteok irtenbide bakarra daukagu: burujabetza. Burujabetza behar dugu beste sistema ekonomiko eta sozial bat abian jartzeko, eraldaketa sozialerako. Eta hori ikusi dugu maiatzean antolatu ditugun hitzaldietan: plazerra izan da azken hamarkadetako borrokaren nondik norakoak jasotzea, guk geuk abian jar ditzakegun burujabetza prozesuez hitz egitea, edota euskararen etorkizunaz gogoetatzeara.

Bide horretan, borrokan eta antolatzen jarraituko dugu.

Gora Ernai!

“Ibilian-ibilian, etxerako bidean” dinamika



Izan Bidea dinamikaren baitan, maiatzaren 8an Euskal Herriko tontor ezagunenak igo genituen, milaka herritarrekin batera, presoak eta iheslariak etxeratzearen alde, eta elkarbizitzaren eta bakearen alde. Inoiz egin den mendi-igoera bateraturik handienez, Tolosaldeko kideok eskualdeko 20 tontorretara eraman genuen euskal presoak, iheslariak eta deportatuak etxeratzearen aldarria, eta 70 anoetarrok baino gehiagok Basagainera egin genuen igoera. Ehunka herritarrek argi azaldu genuen urratsak emateko prest gaudela, maldan gora edo behera, baina guztiok batera, egoera honekin behin betiko amaitzeko.

Azken hilabete hauetan, pixkanaka bada ere, aurrerapauso txikiak ikusten ari gara. Dena den, oraindik asko dago egiteko eta, bizi dugun une garrantzitsu honetan, hasitako bidea muturre-raino eramateko, hau da, salbuespenezko espere-politikarekin amaitu eta bizikidetzan aurrera egiteko, herritarren bultzada ezinbestekoa dela uste dugu, horri esker iritsi baikara honaino.

Horregatik, urratsak ematen jarraitzeko eta bidean aurrera jarraitzeko, ibilian jarri nahi ditugu anoetarrak eta Euskal Herritarrek, “Ibilian-ibilian, etxerako bidean” lelopean, eskualdez eskualde antolatuko ditugun ekimen, mobilizazio eta erronken bitartez.

Mugimenduan dagoen herria izan nahi dugu. Mugimendua ezinbestekoa dugu abiatu berri den aldaketa hori benetakoa izan dadin.

Horrela, Izan Bidea dinamikari bultzada bat ematera datorren Ibilian-ibilian dinamikaren baitan, zenbait ekimen antolatu ditugu eskualdean, uztailaren 5etik 18ra bitartean.

- **Uztailak 15:** “Ibilian-ibilian musikaldia”, Ibarra.
- **Uztailak 16:** “Ibilian-ibilian musikaldia”, Anoeta.
- **Uztailak 17:** “Ibilian-ibilian Tolosaldea Urdinduz”, 11:00etan, Ildiakaitzen ongiertorria.

Ibilian-ibilian elkarbizitzaren eta bakearen aldeko, konponbidearen aldeko eta preso eta iheslarien etxeratzearen aldeko bidean egon nahi duzuen guztiak gonbidatuta zaudete. Esan bezala, urratsak ematen jarraitzeko asmoa dugu. Ibilian-ibilian bidea egiten jarraitzeko. Eta horretara animatu nahi zaituztegu. Izan gaitzen aldaketa horren bultzatzaile. Izan gaitzen etxerako bidean ibiltari.



Kirol Taldearen berriak



Ekainaren 5ean mendi-martxa egiteko hitzordua jarri genuen Anoetako Kirol Taldean. Bi zirkuitu prestatu genituen, bata luzea, 14,5 kilometro ingurukoa, eta bestea motza, 8 kilometrokoa. Eguraldiaren iragarpena ez zen izan nahi bezain ona, baina aurretik genituen zirkuituen edertasunak eta jende gazte zein helduen parte hartzeko gogoak eraginda, 75 lagun inguru elkartu ginen plazan.

08:30ean abiatu ziren ibilbide luzekoak, eta 09:30ean motzekoak. Taldetan banatuta eta minutu bateko tartearekin, giro ederrean egin zuten denek beren ibilbidea. Indarrak hartzeko anoa-gunea ere izan zuten tartean, eta amaieran, parte-hartzaile guztien artean 30 euroko txartelak zozketatu ziren, herriko saltokietan gastatzeko.

Primeran igaro zen goizeko plana, eta Kirol Talde-tik eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu mendi-martxa prestatzen lagundu ziguten boluntario guztiei, baita Anoetako Udalari berari ere, eskainitako laguntzagatik.

Bestalde, AKT Kirol Taldetik kontu pare bat aipatu nahi ditugu:

- Ekainean egin dugun kamiseta-eskaerak izugarrizko arrakasta izan du, eta eskaerak lehenbailehen banatzen saiatuko gara.
- Boulderrean dugun soinu-arazoa dela-eta, instalakuntzan aldaketa batzuk egin ditugu azken egunetan, eta udal-teknikarien balorazioaren zain gaude, arazoa konpondutzat emateko edo hurrengo urratsak zehazteko.



AKT
ANOEKATE KIROL KLUBA

